

Ezarri behar al zaizkie zigorrak seme-alabei?

Adinen arabera, hurrengo estrategiak erabil daitezke:

- **0-2 urte bitartean**

Jo, hozka egin edo janaria lurrera bota duen 2 urteko ume batekin, hurrengo egin beharko litzateke:

- Bere portaera zergatik den onartezina azaldu.
- Beste leku batera eraman ("*etenaldia*"), esaterako sukaldeko aulki batera edo eskaileretako lehenengo mailara, eta bertan bi minutu utzi, lasaitu dadin (ume txiki hauekin, ez da komenigarria denbora gehiago bertan uztea).
- Seme-alabentzat eredu on bat zaretela ziurtatu.

- **3- 5 urte bitartean**

Seme-alabak hazi eta ekintzen eta haien ondorioen arteko harremana ulertzen doazen neurrian, etxeko araei buruz informatzea komeni da. Esaterako, kolorezko margoak egongelako pareta "*apaintzeko*" erabiltzen dituenean:

- Hormetan margotzea zergatik ez dagoen onartua azaldu eta, ondoren, berriz egiten badu zer gertatuko den adierazi behar zaio.
- Berrito margotzen badu garbitzen lagundu beharko duela esan, eta arratsalde osoan margoak ezingo dituela erabili.
- Portaera aproposa saritzea ez da ahaztu behar, hau da, kasu honetan, paperean margotzen duenean.
- "*Etenaldia*" teknika ere erabilgarria da adin honetan.
- Seme-alabei egin behar ez dena azaldu ez ezik, ondo dagoena ere azaldu behar zaie.

- **6-8 urte bitartean**

- "*Etenaldia*" teknika erabil daiteke.
- Bere portaera txarraren ondorioei buruz informatu.
- Zigor bat aurrera eramateko orduan, esandakoa bete; izan ere, umeak gurasoek esaten dutena betetzen dutela jakin behar du.
- Horregatik, zigor ezinezkoak edo errealistak ez direnak baztertu behar dira (esaterako: "berrito danbada bat ematen baduzu, ez duzu sekulan telebista ikusiko!").

- **9-12 urte bitartean**

- Euren portaeraren ondorioak bereganatzen irakatsi behar zaie. Esaterako, 11 urteko seme-alaba etxeko-lanak egin gabe lotara joaten bada, bukatu arte ezingo dela oheratu esan edo etxeko-lanak bukatzen lagundu behar zaio? Seguru asko, ez bata eta ez bestea; izan ere, bere portaeraren ondorioak erakusteko aukera bat alferrik galduko zenukete eta. Etxeko-lanak bukatzen ez baditu, hurrengo egunean eskolara etxeko-lanak egin gabe eraman beharko ditu eta nota txar bat jasotzeko ondorioekin kargatu beharko du.

- **13 urtetik aurrera**

Nerabe batek mugak behar ditu eta mugak jarri behar zaizkio etxeko-lanetan, lagunei egindako bisitetan, gauetan etxera bueltatzeko orduan eta harremanetan. Muga horiek zehatzak izango dira eta argi eta garbi azaldu behar zaizkio aldez aurretik, gaizkiulertuak egon ez daitezen.

Era berean, euren bizitzarekiko kontrol zehatz bat ere utzi behar zaie (arropa, orrazkera, logelan zer jarri, etab.). Adinaren arabera, eskaintzen zaien kontrol maila aldatzen joango da.

Gauza positiboetan zentratzea ere oso garrantzitsua da, esaterako, jarritako mugak denbora batean zehar bete dituenean, etxera bueltatzeko ordua luzatu daiteke, portaera txar batekin lotutako zigor moduan ordu hori aurreratu ordez.

LABURPENA

Familian gatazkak maiz ematen dira; gainera, ez da gauza erraza gatazka horiei aurre egitea, bai seme-alaba txikiekin baita nerabeekin ere. Espazio horretan, arazoa lasaitasunez hartzea gomendatzen da, eztabaidatzea, entzutea eta tolerantzia arazo hori konpontzeko heziketa-tresna aproposenak direla ulertuz.

Dra. Ainhoa Manzano Fernández

Dr. Juan Luis Martín Ayala

ETXADI

Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa

Centro Universitario de Psicología de la Familia